

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Aldatzea mugitzeko arazoak dituzten pertsonen bideratutako eta taxia garraiobide alternatibo modura erabiltzeko laguntzen urteko deialdia. 2022ko ekitaldia

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2021eko urriaren 29an egindako bilkuran, mugitzeko arazoak dituzten pertsonen bideratutako eta taxia garraiobide alternatibo modura erabiltzeko laguntza deialdi honen aldaketa onartzea eta argitaratzea erabaki du. Hona hemen hura arautuko duten:

OINARRIAK

Lehenengoa. Xedea

Mugitzeko arazoak dituzten pertsonen bideratutako eta taxia garraiobide alternatibo modura erabiltzeko laguntzak emateko prozesuaren 2022ko ekitaldiko deialdi publikoa irekitzen da; deialdia arautzen duten oinarriak Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 28ko 55/2017 Foru Dekretuak onartzen ditu.

Bigarrena. Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak eta gastuak

Arabako taxi zerbitzua garraiobide modura erabiltzeak 2022ko ekitaldian eragiten dituen gastuetarako emango dira dirulaguntzak.

Hirugarrena. Pertsona onuradunak. Baldintza orokorrak eta bereziak

1. Dirulaguntzaren onuraduna izango da funts publikoak eskuratzen dituen; dirulaguntza eskuratzeko behar den legezko egoeran egon beharko da.

Artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten adingabeentzako laguntzen onuradunak honako hauek izango dira: aita, ama edo eskumena daukan erakunde publikoaren aurrean formalizatutako tutoretza edo harrera dela bide adingabearen ardura duten pertsonak, baldin eta berarekin bizi badira.

2. Laguntza hauen onuradun izan nahi duten pertsonen 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12. artikuluko 2. idatz zatian ezartzen dituen baldintza orokorrak bete behar dituzte, eta horiez gainera honako hauek ere bai:

a) Gutxienez 12 urte izatea.

b) Eskaera aurkeztu aurretik gutxienez urtebetean jarraian erroldatuta egotea Arabako Lurralde Historikoko udalerrri batean. Edo, adineko, desgaitu, mendeko eta genero indarkeriaren biktimen gizarteratze eta gizarte arretaren arloko Trebiñuko enklabe esparru akordioa garatzen duen lankidetzaren hitzarmenean jasotakoaren arabera, Trebiñuko enklabe udalerrietako batean erroldatuta egotea, eskaera egin aurretik, gutxienez urtebetean jarraian.

c) Ezin dira egon ezgaituta osasun egoerarengatik ez beste ezergatik ohiko etxebizitzatik kanpora joateko.

d) Onuradunak honako hauek bete behar ditu desgaitasunaren aldetik:

— Galera funtzionala edo anatomikoa edo izaerazko deformazioa izatea, ehuneko 33 edo gehiago, garraio kolektiboetara sartzea larri zailtzen diona, arau ezarritako berariazko baremoaren arabera. Horren arabera, gutxienez 9 puntu lortu behar ditu garraiobide kolektiboak erabiltzeko eragozpenak zehazteko baremoan (otsailaren 1eko 383/1984 Errege Dekretua, 25. artikulua).

– Desgaitasun psikikoak, edo gaixotasun mentalak, ez eragozte bere kabuz bizi ahal izatea. Desgaitasun psikikoaren maila ezin da inolaz ere ehuneko 60 edo hori baino handiagoa izan, eta mendekotasuna neurtzeko baremoan honako item hauetako batean, gutxienez, punturik badu, desgaitasun psikikoa ezingo da inolaz ere ehuneko 50 edo hori baino handiagoa izan.

– “Etzetik kanpoko arrisku egoerak eragotzi”

– “Etzetik kanpoko joan-etorriak planifikatu”

e) Baldin eta III. gradu mendekotasuna aitortua izanez gero, ezin da modu iraunkorrean okupatu plaza bat egoitza batean, salbu eta etxebizitza lagunduetan.

Laugarrena. Dirulaguntzak emateko araubidea

Dirulaguntza hauek lehia askean emango dira; funtsak eskaerak jaso ahala banatuko dira deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten artean, harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

1. Araudi honen xede diren laguntzak emateko prozedura onuradun izan nahi duenak eskaera aurkezten duenean hasiko da. Eskaera deialdi honen II. eranskineko eredian formalizatu behar da.

2. Eskaerak aurkezteko epealdia deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 2022ko urriaren 31n amaituko da.

3. Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Nortasun agiri nazionalaren edo atzerriarraren identifikazio agiriaren fotokopia.

b) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari datu pertsonalak biltzeko, erabiltzeko edota transmititzeko baimena emateko agiria (012 eredua), familia unitateko kide guztiek sinatuta (kideak nortzuk diren laguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretako 5. artikuluan zehazten da).

c) Nola laguntza 800,00 eurotik beherakoa den, onuradunak ez dauka egiaztatu beharrik egunean dituela bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuan (ondoren 58/2004 Foru Dekretuak aldatua) ezartzen denaren arabera.

4. Adineko, desgaitu, mendeko eta genero indarkeriaren biktimen gizarteratze eta gizarte arretaren arloko Trebiñuko enklabe esparru akordioa garatzeko Burgosko Diputazioarekin izenpetutako lankidetzak hitzarmena aplikatzearen ondorioz laguntzaren onuradun izan daitezkeen pertsonen kasuan, eskaerak dokumentu horretan ezarritakoaren arabera aurkeztuko dira.

5. Unitate izapidetzailak beretzat gordetzen du laguntzak ondo kudeatzeko behar diren agiri osagarri guztiak eskatzeko eskubidea.

Seigarrena. Laguntzaren zenbatekoa zehaztea

1. Deialdi publiko honetan arautzen diren dirulaguntzak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2022rako aurrekontuko 80203 0321 4800021 “Taxi zerbitzua erabiltzeko laguntzak” gastu partidaren kargura ordainduko dira. Deialdi honetarako hasierako zuzkidura 350.000,00 euro da.

2. Deialdi honetan laguntzak emateko ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea.

3. Laguntzak erabilgarri dagoen kreditua agortu arte emango dira, eskaera, ondo beteta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen erregistroan jaso den dataren eta orduaren arabera lehentasun ordenan.

4. Laguntzaren urteroko zenbatekoa gehienez ere 650,00 euro izango da.

5. Gehieneko zenbateko hori bi irizpide hauen arabera haztatuko da: onuradunaren familia unitatearen errenta (I. eranskineko taulako ehunekoak aplikatuz) eta eskaera noiz aurkezten den.

6. Eskaera aurkezten den data honela haztatutako da:

a. Eskaera 2021eko abenduaren 31ra arte aurkezten dutenei ekitaldi osoko laguntza emango zaie.

b. Eskaera 2022ko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra arte aurkezten dutenen laguntza hil osoka haztatuko da, eskaera aurkezten den hilaren ondokotik aurrera.

7. Gutxienerako laguntza 20,00 eurokoa izango da.

Zazpigarrena. Ordaintzeko modua

1. Onuradunei honela ordainduko zaie garraiorako laguntza: aurreordainketako txartel izenduna emango zaie eta bertan kargatuko da laguntzaren zenbatekoa, taxi zerbitzuan gastatu ahal izateko, garraiobide alternatibo modura.

Laguntza adingabe batentzat bada, txartela beraren izenean egingo da, nahiz eta laguntzaren ondorioetarako gurasoak ere onuradun izan.

2. Txartela pertsonala eta eskualdaezina izango da; onuradunaren izen-abizenak edukiko ditu. Hainbat ekitalditan erabili ahal izango da. Txartelek aukeran dauden hiru teknologiak daukate: banda magnetikoa, EMV txipa eta Contactless; horrez gain, kode bat ere badaukate, mugatzen dituen taxi garraiorako soilik erabiltzeko.

3. Onuradunak Arabako Lurralde Historikoko taxi zerbitzua erabili ahala gastatuko du laguntzaren zenbatekoa, txartelaz ordainduz gero.

4. Ematen den kopurua txartela jasotzen den egunetik, edo ebazpenean adierazten den egunetik (txartela edukiz gero), 2022ko abenduaren 30eko 12:00ak arte erabili ahal izango da taxi zerbitzua ordaintzeko, hura izango da-eta ekitaldiko azken egun balioduna.

5. Txartela galtzen edo narriatzen bada edo norbaitek lapurtzen badu, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari jakinarazi beharko zaio, eta honek ahalik azkarren emango dio ordezkia onuradunari, baina ez ditu ordainduko onuradunak bien bitartean taxi zerbitzua erabiltzeagatik egiten dituen gastuak.

Zortzigarrena. Gastuen eta ordainketen justifikazioa

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak behar diren egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu, eta berak nahi duen bezala, emandako dirulaguntzak zertan eta nola erabili diren argitzeko.

2. 11/2016 Foru Arauak 35. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz, datu faltsuak ematen badira edo datuak ezkututzen badira, dirulaguntza ebazpenean ezarritako xederako gabe beste baterako erabiltzen bada edo onuradunak kontrol jarduketak onartzen ez baditu edo eragozten baditu, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du edo, dagoeneko ordainduta badago, itzuli egin beharko du eta berarekin batera berandutze korrituak ordaindu beharko ditu. Baldin eta onuradunak ez badu itzultzen bidegabe ordaindutako zenbatekoa edo ordainketan berandutzen bada, premiamendu bidez eskatu ahal izango zaio.

Bederatzigarrena. Dirulaguntza bat baino gehiago aldi berean jasotzea

Laguntza hauek bateragarriak izango dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publikoek zein entitate pribatuek (Estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) ematen dituzten beste dirulaguntza eta laguntza batzuekin.

Ematen den banako dirulaguntza baten zenbatekoa ezin da izan, bera bakarrik zein Estatuko zein nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko zein entitate pribatu batzuek emandako dirulaguntza, laguntza eta gainerako sarrerekin bat eginda, onuradunak taxi zerbitzuan egiten duen gastua baino gehiago.

Hamargarrena. Eskerak izapidetzea eta ebaztea

1. Desgaituen Arloko Idazkaritza Teknikoko Zuzendariordetzak dauka prozeduraren instrukzioa egiteko eskumena, eta zuzendaritza horrek izapidetuko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari behar bezala arrazoitutako ebazpen proposamena, zeinak eskumena baitu hura ebazteko.

Azaroaren 17ko 11/2016 Foru Arauak 22. artikuluan ezartzen duenaren arabera, instrukzio organoak ofizios egiten ditu ebazpenerako behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak. Honako eskumen hauek edukiko ditu, batik bat:

a. Ebazteko beharrezkotzat jotzen diren txosten guztiak eta dirulaguntzari buruzko arauetan eskatzen direnak eskatzea.

b. Beste ebazpen proposamen bat egitea.

2. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak izango du eskumena deialdi honen babesean izapidetzen diren espedienteak ebazteko, hala agintzen baitu Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduari buruzko arautegiak 25. artikuluan.

3. Ebazpena arrazoitu egin behar da, eta honako hauek argitu behar ditu:

a. Laguntza ekonomikoa ematea bidezkoa den ala ez.

b. Laguntza ekonomikoaren zenbatekoa.

c. Ebazpena emateko epea.

4. Deialdi bakoitzean laguntza jasotzeko ezartzen betekizun guztiak betetzeak ez dakar berez eta besterik gabe laguntza eskuratzeko eskubidea.

5. Deialdi baten babespean laguntza bat emateak ez dakar berekin Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hurrengo ekitaldietan antzeko jarduketetarako nahitaez laguntza eman behar izatea.

Hamaikagarrena. Ebazteko eta jakinarazteko epeak

1. Garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskaerak, eskatutako agiri zehatz guztiak dituztenak, aurkezten direnetik hiru hilabete pasatu baino lehen ebatzi behar dira. Aldi hori zenbatzeko ez da kontuan hartuko espedientea etenda dagoen denbora, baldin eta etenduraren arrazoiak eskatzaileari egotzi ahal bazaizkio.

2. Ebazpena emateko epealdian berariazko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezetsizat jo behar da, 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 24.1 a) artikuluan eta azaroaren 17ko 28/2003 Lege Orokorrek, dirulaguntzenak, 25.5 artikuluan ezartzen dutenarekin bat etorritik.

3. Ebazpena, laguntza eman edo ukatzen duena, 39/2015 Legeak 40 – 46 bitarteko artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorritik jakinaraziko zaio eskatzaileari.

4. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari, eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko zaio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluari, hilabete epean, ebazpenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan jasoriko moduan eta epean.

Hamabigarrena. Datu pertsonalen tratamendua

Indarrean dagoen Datu Pertsonalen Babesari buruzko araudiak xedatutakoaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak tratatuko ditu deialdi honek arautzen dituen laguntzak jasotzeko aurkezten diren eskaerako datu pertsonalak eta baita laguntzak kudeatzeko,

hartu-emanak izateko eta komunikatzeko eta erakunde honi eskatutako edo erakunde honek emandako zerbitzuak kudeatzeko interesdunekin harremanetan jarrita eskuratzen diren guztiak ere. Datuak tratatu ahal izateko, interesdunak baimena eman behar du, foru erakundeak bere berezko funtzioak betetzeko erabili behar ditu edo aurreko bi egoera horiek eman behar dira. Datuak ez zaizkie hirugarrenei helaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Datuak ez zaizkio estatutik kanpoko inori helaraziko. Babes bereziko datuak dira.

Zure datuak ikusi, aldatu eta ezabatu ditzakezu, eta baita haien gaineko beste eskubide batzuk baliatu ere, honako webgune honetan duzun informazio osagarrian ikus dezakezun moduan: <https://web.araba.eus/eu/gizarte-zerbitzuak/datuen-babesa> edo idazkia bidal dezakezu, zure NANaren bidez identifikatu ostean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundera (San Prudentzio kalea, 30. 01005 Gasteiz), edo mezu elektronikoa bidali datuak babesteko gure ordezkariari, honako helbide honetara: dpd_ifbs@araba.eus.

Hamahirugarrena. Azken klausula

Deialdi honen oinarriak honako hauetan ezartzen denaren mende egongo dira erabat: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; azaroaren 28ko 55/2017 Foru Dekretua, onesten duena mugitzeko arazoak dituzten pertsonen bideratutako eta taxia garraiobide alternatibo modura erabiltzeko laguntzak arautzen dituen araudia, eta aplikazio orokorreko gainerako guztiak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 29a

*Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako
Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluaren lehendakaria
EMILIO SOLA BALLOJERA*

I. ERANSKINA



Familiaren diru sarreraren mugak, desgaituentzako banakako laguntzak jasotzeko gaintitu ezingo direnak, eta diruz laguntzeko moduko gehieneko ehunekoa, laguntzan gehienez eman daitezkeen zenbatekoen gainean.

Familiaren sarrera kide guztien sarreraren batura da.

	FAMILIA UNITATEA KIDE 1		FAMILIA UNITATEA 2 KIDE		FAMILIA UNITATEA 3 KIDE		FAMILIA UNITATEA 4 KIDE		FAMILIA UNITATEA 5 KIDE		FAMILIA UNITATEA 6 KIDE EDO GEHIAGO	
	EUROAK	EHUNEKO	EUROAK	EHUNEKO	EUROAK	EHUNEKO	EUROAK	EHUNEKO	EUROAK	EHUNEKO	EUROAK	EHUNEKO
Diru sarrerak honaino	18.562	100	27.842	100	34.802	100	40.022	100	44.027	100	48.428	100
Diru sarrerak honaino	19.026	95	28.538	95	35.673	95	41.024	95	45.127	95	49.639	95
Diru sarrerak honaino	19.501	90	29.251	90	36.565	90	42.049	90	46.255	90	50.879	90
Diru sarrerak honaino	19.988	85	29.982	85	37.478	85	43.100	85	47.410	85	52.151	85
Diru sarrerak honaino	20.487	80	30.733	80	38.415	80	44.177	80	48.597	80	53.454	80
Diru sarrerak honaino	21.000	75	31.500	75	39.376	75	45.281	75	49.811	75	54.792	75
Diru sarrerak honaino	21.525	70	32.289	70	40.360	70	46.415	70	51.055	70	56.161	70
Diru sarrerak honaino	22.064	65	33.096	65	41.369	65	47.574	65	52.332	65	57.565	65
Diru sarrerak honaino	22.614	60	33.924	60	42.404	60	48.764	60	53.640	60	59.005	60
Diru sarrerak honaino	23.183	55	34.770	55	43.464	55	49.983	55	54.982	55	60.478	55
Diru sarrerak honaino	23.762	50	35.640	50	44.551	50	51.233	50	56.356	50	61.991	50
Diru sarrerak honaino	24.354	45	36.532	45	45.665	45	52.513	45	57.765	45	63.541	45
Diru sarrerak honaino	24.963	40	37.445	40	46.805	40	53.826	40	59.209	40	65.131	40
Diru sarrerak honaino	25.587	35	38.380	35	47.975	35	55.172	35	60.689	35	66.759	35
Diru sarrerak honaino	26.226	30	39.341	30	49.175	30	56.552	30	62.206	30	68.428	30
Diru sarrerak honaino	26.883	25	40.324	25	50.404	25	57.964	25	63.762	25	70.136	25
Diru sarrerak honaino	27.555	20	41.332	20	51.664	20	59.413	20	65.356	20	71.890	20
Diru sarrerak honaino	28.243	15	42.365	15	52.955	15	60.900	15	66.988	15	73.689	15
Diru sarrerak honaino	28.950	10	43.422	10	54.279	10	62.422	10	68.664	10	75.529	10
Diru sarrerak honaino	29.674	5	44.508	5	55.636	5	63.981	5	70.379	5	77.419	5
Hau baino gehiago	29.674	0	44.508	0	55.636	0	63.981	0	70.379	0	77.419	0

Familia unitatean eskatzaile onuradunaz gainera ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa daukan beste pertsona bat bizi bada, familiako kideen kopuruari beste bat gehituko zaio diru sarreraren mugak aplikatzeko.

Orrialdea 1/3

<p>▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA</p>  <p>Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Instituto Foral De Bienestar Social</p> <p>▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA www.araba.eus/ifbs/</p>	<p>Mugitzeko arazoak dituzten pertsonei taxia garraio bide alternatibo modura erabiltzeko laguntzak</p> <p style="font-size: 2em; font-weight: bold;">047</p> 
--	---

Erabiltzailearen datuakDEIALDIAREN URTEA Hurrengo hau denez: Onuraduna Legezko ordezkaria Onuradunak egoitza batean behin-betiko plazarik okupatzen du? BAI EZ Egoitza Sarrera data Onuradunak laguntzadun etxebizitza batean behin-betiko plazarik okupatzen du? BAI EZ Laguntzadun etxebizitza Sarrera data Lehen abizena Bigarren abizena Izena Jaiotza data (eguna, hilabetea eta urtea) Sexua G E Nazionalitatea Egoera zibila Helbidea (jakinarazpenetarako) Zenbakia Blokea Eskailera Solairua Atea P.K. Udalerria Herria Probintzia /L.H. NAN/IFZ •AIZ • Beste bat Telefono finkoa Sakelako telefonoa Helbide elektronikoa **Eskatutako dirulaguntzaren onuradunaren datuak**

(Eskatzailea eta onuraduna pertsona bera badira, ez bete)

Lehen abizena Bigarren abizena Izena Jaiotza data (eguna, hilabetea eta urtea) Sexua G E Nazionalitatea Egoera zibila Helbidea (Kalea/ Plaza) Zenbakia Blokea Eskailera Solairua Atea P.K. Udalerria Herria Probintzia /L.H. NAN/IFZ •AIZ • Beste bat Telefono finkoa Sakelako telefonoa Helbide elektronikoa **Laguntza honentzat ESKATZEN DU:**

RE: 21/312

Orrialdea 2/3

FAMILIA UNITATEAREN ORAINGO DIRU-SARRERA ETA ONDASUNEI BURUZKO ZINPEKO AITORPENA**Lan etekinak eta jarduera etekinak**

Deskripzioa	Urteko zenbatekoa	Jasotzailea
	€	
	€	
	€	

Pentsioak, sorospenak eta prestazioak

Deskripzioa	Urteko zenbatekoa	Jasotzailea
Alargun pentsioa	€	
Erretiro pentsioa	€	
Baliaezintasun handiko pentsioa baduzu? Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>	€	
KGP/GOF/MGL	€	
Beste batzuk (zehaztu)	€	

FAMILIA UNITATEAREN ORAINGO DIRU SARRERA ETA ONDASUNEI BURUZKO ZINPEKO AITORPENA**Balio higikorrek**

Deskripzioa	Hauek ditu jabetzan	Zenbatekoa/Saldoa	Etekina	Titularra
Aurrezki libretak/ Kontu korranteak		€	€	
Bonoak, zor publikoa, letrak ...		€	€	
Inbertsio funtsak...		€	€	
Akzioak/obligazioak...		€	€	
Beste batzuk (zehaztu)		€	€	

Balio higiezinak (ohiko etxebizitza, etxeak, hiri edo landa-finkak, gozamenak...)

Mota	Deskripzioa	Katastroko balioa	Etekina	Titularra
		€	€	
		€	€	
		€	€	

Adierazten dut ez dudala beste balio higiezinik Euskal Autonomia Erkidegoan, ez eta Espainiako beste autonomi -erkidego batzuetan ere.

Eskualdaketak, Dohaintzak

Deskripzioa	Data	Balioa	Hartzailea
		€	
		€	
		€	

Orrialdea 3/3

Aurreko ekitaldian garraio-laguntzaren onuraduna izan naiz

Bai Ez **NIRE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DITUT HONAKOAK:**

Eskabide honetan adierazitako datuak benetakoak direla.

Beharrezko egiaztapenak eta fitxategi publikoei kontsultak egiteko baimena ematen dudala, aitortutako datuak Administrazio Publiko eskudunen eskuetan daudenean bat datozela ziurtatzeko.

Badakidala aurrerantzean gerta daitezkeen eta 1. eskaera honi eragin diezaioketen aldaketen berri Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeari ematera behartuta nagoela, 15 egutegi-egunen epean aldaketa gertatzen den egunetik hasita.

 -(n), 20 -(e)ko -ren -(e)an

Eskatzailearen sinadura

Legezko ordezkariaren sinadura*

* Eskatzaileak ez sinatzeko arrazoiak

Dokumentu hau sinatuz, goian sinatzen duenak adierazten du informatuta dagoela eta **DBLO Lege Oharrean** (012. eranskina) aipatutako baimena ematen duela, bere datu pertsonalak erabil ditzan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak.